



## **LGTBI+ HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA**

### **Ekainak 28**

Astigarragako udaleko taldeek aho batez adostutako adierazpena

50 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI+ pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI+ pertsonak eta kolektiboek Euskal Herriko kaleak hartu zituzten estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.

Covid-19aren pandemiaren ondorioz, une historiko aparta bizi dugu. Mundua oso astindua izan da, gure bizimoduak hankaz gora jarri dira eta "normaltasun berri" batera itzultzeaz hitz egiten entzun dugu. Hala ere, LGTBI+ pertsonak bezala gure gizarte-ereduak ezartzen duen arauarekiko disidenteak direnentzat, itzulera horrek diskriminaziora eta bazterkeriara itzultzea ekar dezake. Diskurtso-esparruak, konfinamenduaren kudeaketak eta deseskaladak dagoeneko erakutsi dute zerbait berrirako bide hori betiko ikusezintasunaz eta arretarik ezaz beteta egon daitekeela, hain zuzen ere diskriminazio gehien jasaten duten kolektiboek begira.

Konfinamenduak eragin negatibo espezifikokoak ekarri ditu LGTBI+ pertsonentzat, eta argi dago ondorengo krisi sozioekonomikoak eragin horietan sakondu baino ez duela egingo. Pandemiaren aurretik zeuden errealitateak puztu egin dira: LGTBI+ pertsona askok indarkeria jasan dute haienezat seguruak ez diren etxeetan bizi behar izateagatik; beste batzuek arazoak izan dituzte osasun-zerbitzu espezifikoetara edo, oro har, zerbitzu publikoetara iristeko; jazarpen handiagoa jasan dute kaleetan edo lanean, eta, oro har, beren osasuna okertu, eta estres psikologikoa eta emozionala areagotu egin da, gainerakoek baino neurri handiagoan. Bazterkeria, prekaritatea eta diskriminazioa direla eta, ondorio negatiboak biderkatu egiten dira, adina, klasea, arraza edo egoera administratiboa bezalako beste ezaugarri batzuk kontuan hartzen ditugunean.

Erakundeetatik pertsona guztientzako eskubide guztiak bermatzeko erantzukizuna dugu, eta bereziki zaindu behar dugu LGTBI+ bezalako kolektibo zaurgarrienek eskubide horiek izan ditzaten. Covid-19aren garaian ere egin behar dugu: krisia ezin da aitzakia izan inor atzean uzteko. Garaiz gaude "normaltasun berri" hori garai berri bat izan dadin, euskal jendarte errespetuzkoago, justuago, duinago eta askeago baterantz aurrera egiteko aukera bat.



Horregatik, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI+ kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Aurten Harrotasuna LTB emakumeen berdintasunaren aldeko borrokara zuzendua dago “2020, LTB Emakumeak: Sororitatea eta Feminismoa” esloganaren bidez. Izan ere, LGTBI+ kolektiboaren barruan emakumeak dira gutxien ikusten direnak eta, zenbaitetan, ahaztuta geratzen direnak.

“La Cara oculta de la violencia hacia el colectivo LGTBI” txostenean jasotakoaren arabera, gure kolektiboaren aurka sexu-orientazioagatik indarkeria jasan zutenen erregistratutako biktimen % 72 gizon gay-ak ziren; % 21, berriz, emakume lesbianak eta % 2 pertsona bisexualak. Izan ere, Violeta Assiego-ren arabera, “gizon gay-ak hobeto onartuta daude eta salatzeko eskubidea dutela sentitzen dute”. ILGA elkarteak azaldu duenez, “gizon homosexualen lehen eskaeratako bat ikusgaitasuna izan zen, gay figura onartzea... eta lortu zuten. Baina emakume lesbianen kasuan ikusezin egiteko asmo soziala dago oraindik... badirudi mamuak direla”. Halaber, emakume transexualek ere diskriminazioa eta desparekotasuna jasaten dute, bereziki lan-mudura heltzeko duten zailtasuna kontuan hartzen badugu.

LGTBI+ pertsona guztiek eskubide eta berdintasun erreala izango luketen gizarte bat lortzeko euren lagunekin batera hainbeste denboran borrokatu zuten emakume Lesbiana, Transexual eta Bisexual guztiak LGTBI+ aktibismoaren Memoria Historikotik ezabatzea ez dugu onartu behar.

Udal honek LGTBI+ pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi du. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, mugimendu feministako eta LGTBI+ mugimenduko ordezkari eta adituekin elkarlanean.

Horregatik, Udal honek konpromisoa hartzen du honako hau egiteko:

1) Konpromisoa hartzen du LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean indarkeria matxista bere osotasunean jasotzen duen *Astigarragako Udaleko eraso matxisten aurrean jarduteko eta erantzuteko protokoloaren* jarraipena hobetzeko.

2) Konpromisoa hartzen du LGTBI+ pertsonentzako tratu-berdintasunerako eskola-bizikidetzako planak edo ekintzak hezkuntza-esparruan lantzeko.

3) Konpromisoa hartzen du, halaber, LGTBI+ pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurri zehatz hauek hartzeko: administrazio-formularioetan aldaketak egitea binarismoa gainditzeko (pertsonei buruz egiten dituen datu-bilketatan hiru aukera jarriko dira, emakumezkoa, gizonetzkoa eta beste generoak; Aldagelak eta komunak aztertuko dira, egin beharreko egokitzapenak egiteko instalazio publikoetan; Eraikin publikoetako seinalektika aztertuko da eta egin beharreko aldaketak

egingo dira; Igerileku publikoen araudia aztertuko da; Kiroldagiko langileei oinarritzko formazioa eskainiko zaie.

4) Konpromisoa hartzen du emakume bisexualei, lesbianei eta transexualei lotzen zaizkien estereotipoekin amaitzeko lan egiteko, jazarpen eta eraso LGBTIfobikoei erantzuteko eta jazarpen kasuei arreta emateko protokoloak bultzatzeko hainbat eremutan.

5) Konpromisoa hartzen du haur eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzeko, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzeta-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.

6) Konpromisoa hartzen du ikuspegi feminista duten prestakuntza-prozesuak bultzatzeko, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.

7) Konpromisoa hartzen du sentibilizazio-kanpaina feministak egiteko, Covid-19aren krisialdiaren testuinguru sozialera egokituta, epe labur, ertain eta luzean, sexu-genero dikotomiari, heteronormatibitateari eta eremu desberdinetan LGBTBI+ pertsonenganako indarkeriaren eta diskriminazioaren adierazpen eta forma anitzei buruzko kontzientzia kritikoa hartzea errazteko.

8) Erregistro Zibilari eskatzen dio emakume-bikoteekiko baldintza diskriminatzailea —ezkondata egon behar dute jaioberriak inskribatzeko— ezabatzeko.

9) Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LGBTBI+ Euskal Lege Integral bat prestatzeko.

10) Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio LGBTBI+ Euskal Kontseilua sortzeko, gizarte-eragile publikoen eta pribatuen parte-hartze aktiborako espazio gisa.

11) Astigarrarei dei egiten diegu LGBTBI+ mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte hartzeko, gizarte askeagoa eta berdinzaleagoa eraikitzeko.

**Astigarragako Udaleko EH Bildu, EAJ/PNV eta PSE-EEko udaltaldeak  
aho batez onartutako adierazpena**

**Astigarraga, 2020ko ekainaren 23a**



## **DÍA INTERNACIONAL DEL ORGULLO LGTBI+ 28 de junio**

### **Declaración institucional aprobada por los grupos políticos municipales de Astigarraga por unanimidad**

Han pasado 50 años desde que en Stonewall lesbianas, gays, transexuales y, sobre todo travestis, se rebelaron frente al acoso y chantaje continuos que recibían por parte de la policía: este hecho marcó un antes y un después en la lucha de las personas LGTBI+. 10 años más tarde, el 10 de junio de 1979, un policía mató a Antonio Vicente Santa María (Francis) en una discoteca de Errenteria por ser travesti. Ese 28 de junio personas y colectivos LGTBI+ salen a las calles en Euskal Herria por primera vez exigiendo vivir de forma libre su sexualidad y su género.

Desde aquel día en Stonewall el 28 de junio se celebra el Día Internacional del orgullo LGTBI+: un día para la celebración de una larga lucha disidente, de los logros conseguidos y, al mismo tiempo, de reivindicación de todo lo que falta por avanzar en términos de derechos.

Vivimos un momento histórico excepcional debido a la pandemia del Covid-19. El mundo ha sido fuertemente sacudido, se han trastocado nuestras formas de vida y oímos hablar de volver a una “nueva normalidad”. Sin embargo, para quienes como la población LGTBI+ son disidentes a la norma que impone nuestro modelo social esa vuelta puede suponer volver a la discriminación y exclusión. El marco discursivo, la gestión del confinamiento y la desescalada ya han demostrado que ese camino hacia algo nuevo puede estar plagado de la misma invisibilización y falta de atención de siempre, precisamente hacia aquellos colectivos que más discriminación sufren.

El confinamiento ha generado impactos negativos específicos en las personas LGTBI+ y es evidente que la crisis socioeconómica posterior no va a hacer más que ahondar en esos impactos. Realidades que ya existían antes de la pandemia se han visto exacerbadas: muchas personas LGTBI+ han sufrido violencia por tener que volver a vivir en hogares no seguros para ellas; otras han tenido problemas para acceder a servicios de salud específicos o en general a servicios públicos; han sufrido mayor acoso en las calles o en el trabajo y, en general, han visto empeorada su salud y aumentado el estrés psicológico y emocional en mayor medida que el resto de la población, debido a una realidad de exclusión, precariedad y discriminación que multiplica sus efectos negativos cuando tenemos en cuenta otras características como la edad, la clase, la raza o la situación administrativa.

Desde las instituciones tenemos la responsabilidad de garantizar todos los derechos para todas las personas y de velar particularmente para que los colectivos más vulnerables como el LGTBI+ gocen de ellos. También debemos hacerlo en tiempos de Covid-19: la crisis no puede ser la excusa para dejar a

nadie atrás. A tiempo estamos de que esa “nueva normalidad” sea un tiempo nuevo, una posibilidad para avanzar hacia una sociedad vasca más respetuosa, justa, digna y libre.

Por eso, este 28 de junio queremos reconocer la larga e inestimable lucha de tantos colectivos y personas LGTBI+ en Euskal Herria: en estos tiempos difíciles siguen demostrando que son un referente para la emancipación de las personas y de nuestro pueblo.

Este año el Orgullo esta dirigido a la lucha por la igualdad de las mujeres LBT con el eslogan “2020, Mujeres LTB: Sororidad y Feminismo”. Y es que dentro del colectivo LGTBI+ las mujeres son las grandes invisibilizadas y en algunos casos, hasta olvidadas.

En el informe La Cara oculta de la violencia hacia el colectivo LGTBI+, se indica que el 72% de las víctimas registradas de violencia por orientación sexual contra nuestro colectivo fueron hombres gays frente a un 21 % de mujeres lesbianas, y un 2% de personas bisexuales. Y es que, de acuerdo con Violeta Assiego “los hombres gays están más reconocidos y se sienten legitimados a denunciar”. Como explica la ILGA; “una de las primeras demandas de los hombres homosexuales fue la visibilidad, el reconocimiento de la figura gay... y lo lograron. Pero en el caso de las mujeres lesbianas hay aún una intención social de invisibilizar... parece que sean fantasmas”. Asimismo, las mujeres transexuales también son presas de la discriminación y la desigualdad, atendiendo especialmente a la dificultad por incorporarse al mercado laboral.

No debemos permitir que se borre de la Memoria Histórica del activismo LGTBI+ a todas las mujeres Lesbianas, Transexuales y Bisexuales que durante tanto tiempo lucharon mano a mano con sus compañeros para conseguir una sociedad en la que todas las personas LGTBI+ tuvieran derechos e igualdad real.

Asimismo, queremos reiterar el compromiso político de este ayuntamiento con los derechos de las personas LGTBI+, todos los días del año. Más allá de las declaraciones, nuestro compromiso debe reflejarse en políticas concretas, políticas que deben ser consensuadas con representantes y expertas de los movimientos feminista y LGTBI+.

Es por ello que este Ayuntamiento se compromete a:

- 1) A mejorar el seguimiento del *Protocolo local de actuación y respuesta del ayuntamiento de Astigarraga ante las agresiones machistas* frente a la violencia contra las personas LGTBI+.
- 2) A seguir trabajando en el ámbito educativo acciones o Planes de convivencia escolar para la igualdad de trato para las personas LGTBI+.
- 3) A adoptar medidas concretas dirigidas a garantizar los derechos de las personas LGTBI+: modificación de los formularios administrativos para superar el binarismo (en los formularios que

recogan datos sobre personas se plantearán tres opciones, mujer, hombre y otros géneros); se estudiarán los baños y vestuarios de las instalaciones públicas, al objeto de realizar las modificaciones necesarias, así como la señalética y la normativa relativa a las piscinas públicas, ofreciendo al personal del polideportivo la formación básica necesaria.

4) A trabajar para romper con los estereotipos que acompañan a las mujeres bisexuales, lesbianas y transexuales e impulsar protocolos de respuesta y atención ante el acoso y las agresiones LGTBIfóbicas en diferentes ámbitos.

5) A establecer medidas dirigidas a la protección de niñas, niños y adolescentes transexuales, en particular procesos coeducativos que incluyan la realidad trans, con agentes socioeducativos.

6) A impulsar procesos formativos con enfoque feminista dirigidos a personal público y político, particularmente en atención al público, ámbito social y educativo.

7) A llevar a cabo campañas de sensibilización feministas adaptadas al contexto social de la crisis del covid-19 que, a corto, medio y largo plazo faciliten la adquisición de conciencia crítica sobre la dicotomía sexo-género, la heteronormatividad y las múltiples expresiones y formas de la violencia y discriminación.

8) A solicitar al Registro Civil que se suprima el requisito discriminatorio hacia las parejas de mujeres, que deben estar casadas para inscribir a los nacidos.

9) A instar al Gobierno Vasco a la elaboración de una Ley Integral Vasca LGTBI+.

10) A instar al Gobierno Vasco a la creación del Consejo Vasco LGTBI+, como espacio para la participación activa de los agentes sociales públicos y privados.

11) A invitar a las y los astigartarras a participar en las actuaciones organizadas y convocadas por el movimiento LGTBI+ y el movimiento feminista en nuestros pueblos y ciudades, para construir una sociedad más libre e igualitaria.

**Declaración aprobada por unanimidad por los grupos políticos  
del Ayuntamiento de Astigarraga EH Bildu, EAJ/PNV y PSE-EE**

**Astigarraga, 23 de junio de 2020**